

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA

Azken kontzertuak, Gabonei hasiera

Bihar eskainiko dute azkeneko musika entzunaldia Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleek.

GABONEN atarian, hainbat kontzertu eta entzunaldi egin dituzte asteotan Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleek. Bihar izango dute, azkenekoa. Arratsaldeko 19:30ak aldera, entzunaldia egingo dute trikitixa eta pandero taldeak, akustiko taldeak, teklatu taldeak eta talde modernoek. Musika Eskolako Areto nagusian izango da.

Gabonak iragartzen, aurrekoan

Gabonei hasiera emango dio biharko emanaldiak; aurretik, ordea, musika eskolako instrumentu guztiek izan dute protagonismoa. Igandean, gainera, Gabon giroan murgiltzeko aukera eskaini zuten Andre Mari elizan, Aiztondo abesbatzarekin batera. ■



Aiztondo abesbatzarekin batera eskaini zuten kontzertua igandean Musika Eskolako ikasleek.

■ KIROLDEGIA

Kirol Eguna, asteburu honetan

Igandean izango da Inuxente Krosa. 16:00etan abiatuko dira haurrak korrika; gero, helduak.

URTERO bezala, Gabonak kirola egiten hasteko gonbidapena luzatu du, beste behin, Mundarro Kirol Elkarteak. Kirol Eguna egingo dute asteburu honetan; larunbatean hasiko da, hainbat kirolekin, eta igandean borobilduko dute Inuxente Krosarekin.

Kirolak aukeran, larunbatean

Denera, hamahiru kirol probatzeko aukera izango da larunbatean, bi txandatan. Goizean, 10:30etan hasita, judoa familian, eskubaloia eta saskibaloia egin ahal izango da. Eta arratsaldean, 16:00etan hasita, gainontzekoak: zumba eta Jump Fit kids, aeropilatesa, body flow eta hipopresiboak, Zumba, TRX, Ziklo Indoor, Jump Fit eta Fit Pump.

Inuxente Krosean parte hartu nahi duenak izena eman dezake, kiroldegian.

Pelota eta krosa, igandean
Igandean, aldiz, pelota eskolako haurrak eta palako neskak arituko dira, goizeko 10:00etan hasita, Txomiñenea frontoian.

Ondoren, arratsaldean egingo dute Inuxente Krosa. 4 eta 15 urte bitarteko haurrak hasiko dira, arratsaldeko 16:00etan; eta ondoren izango da helduen txanda, 17:30etan.

Parte hartzeko, izena eman beharko da aurrez kiroldegian edo egunean bertan: helduek, 5 euro; haurrek, bazkideek eta kirolariek, aldiz, debalde. ■

■ UDALA PLENOA

Behin betiko onarpena, bihar

Aurrekontuez gain, sei mozio ere eztabaidatuko dira biharko Plenoan, 13:30etatik aurrera.

GABONETAKO oporrak direla eta, aurreratu egin du Udalak abenduko Plenoaren data; bihar egingo dute osoko bilkura, eguerdiko 13:30etan hasita, udaletxeko pleno aretoan.

Aurrekontuen onarpena
Denera hamaika puntu azter-

tuko dituzte biharko zitan; tartean, 2019ko udal aurrekontuen behin betiko onarpena izango da. Horrez gain, ondasun eta eskubideen inbentarioaren berri ere emango dute, eta sei mozio landuko dira, Justicia Poetica taldeak aurkeztutakoa barne. ■

MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

AINHOA
Janaridenda

Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

■ GABONAK

Larunbatetik etzira, Santo Tomaseko feria

Santo Tomas eguna da etzi, ostiralean, eta hori aurrez ospatu zuten astigartarrek, larunbatean, txistorra jan eta Foru Plazan jarri zituzten postuekin gozatu. Eta Santo Tomas eguna bera gozatzeko aukera ere izango dute astigartar askok eta askok; Herri Eskolako haurrak tarteko, bihar izango baitute azken klase eguna, eta ordua hasiko baitituzte neguko oporrak. Olentzero eta Mari Domingiren bisita jasoko dute, orduan. ■

■ GURASOLAGUN

Urteko azkeneko zita, euskeraz

Euskeraz dakiten gurasoek eta ikasten ari direnek elkartzeko urteko azkeneko aukera izango dute bihar, Gurasolagun tailerarean, arratsaldeko 16:45etatik 18:00etara bitarte, Herri Eskolako jangela txikian. Izena emateko: 943 335 064 (kultur etxea) edo iker-g@aeek.eus. Haurrek ere aukera daukate bertan egoteko, Xaguxar aisialdi taldeko kideekin batera. ■

■ KIROLDEGIA

2019an ere, kirola egiteko aukera

2019an ere kirola egiteko aukera luzatu du, beste behin, Astigarragako Kiroldegiak. Aurretik ere eskaini dituen ikastaroak jarri ditu aukeran, baina ez horiek bakarrik; urtariletik aurrera, dantza modemoan aritu ahal izango dute gaztetxoek. Etzira arte dago aukera izena emateko, kiroldegian: kiroldegia@astigarraga.eus edo 943 333 676. ■

■ UDALA

Egutegien banaketa, hasita

2019ko Udal Egutegia banatzen hasi ziren astelehenean, eta oraindik eskuratu daiteke udaletxean, kultur etxean, eta baita Astiko merkatarien elkarrekin dendetan ere. ■

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzatabema@gmail.com

☎ **TAXIAK:** 622 222 343 | **UDALZAINGOA:** 943 335230 - 699 487 587 | **DYA:** 943 46 46 22 (Hernani) | **AUTOBUSAK:** Areizaga: 943 452708 | **ANBULATORIOA:** 943 33 56 44
 ✚ / **Egunez:** | **ASTEAZKENA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **IOSTEGUNA Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** | **OSTIRALA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **ILARUNBATA Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** | **IGANDEA Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** | **ASTELEHENA TENA** ASTIGARRAGA Nagusia, 16 **943 543718**
 | **ASTEARTEA Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** / **Gauzez: Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA

GAUR

Eguraldi nahasia eta aldakorra izango da gaur, eta zenbait momentutan ostarteak ere irekiko dira. Dena den, hainbatetan lainoak sartu eta zaparradak bota ditzake. **Min.9° / Max.14°**

BIHAR

Lainotza aldakorra izango da bihar, lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira. Eguerdialdean ostarte ederrak ikusiko dira. Temperaturak pikka bat egingo dut gora. **Min.9° / Max.16°**

(euskalimer)

■ SAGARDOA

Sagardoaren eta sagardotegien egun haundian parte hartu nahi?

Gartziandia sagardotegian izango da 2019ko txotx denboraldiaren irekiera urtarrilaren 16an. Bost sarrera bikoitz zozketatuko dituzte.

AZKENEKO txanpa dute sagardotegiek beren txokoak txotx denboraldi berrirako prestatzeko, eta horren bitartean, sagardoa ere izan da protagonista azken egunotan. Euskal Sagardoa aurkeztu eta sustatzeko kanpainari bukaera eman zioten aurreko ostira-lean Joseba Barandiaran plazan, eta aurretik, Sagardo Apurua egin zuten Donostiako Bulebarren.



Kanpainaren bukaera-festa egin zuen aurreko ostira-lean Euskal Sagardoak.

Gartziategin, irekiera ekitaldia

Donostiako ekitaldian iragarri zuten urtarrilaren 16an egingo dutela 2019ko txotx denboraldiaren irekiera, hau da, XXVI. Sagardo Berriaren Eguna, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta. Gartziandia sagardotegian izango da ekitaldi nagusia, Sagardoetxetik pasata.

Bost sarrera bikoitz, zozketan Bertan presente egoteko aukera luzatuko diete, aurrenekoz, herritarrei; bost sarrera bikoitz zozketatuko baititu Sagardoaren Lurraldeak astigarraren artean. Parte hartzeko, hiru baldintza ezarri dituzte: Astigarragako izatea, 18 urtetik gorakoa izatea eta sagardogilea ez izatea.

Parte hartu nahi dutenek, urtarrilaren 6ra arte izango dute apuntatzeko aukera: Sagardoetxean, 943 550 075 telefonoan edo info@sagardoarenlurralde.com helbidean. Izena ematerakoan, ezinbestekoa izango da ekitaldira bertaratuko diren bi lagun izen-abizenak ematea, aurretik. ■

■ EH BILDU PRENTSA-OHARRA

«Herriko familiak eta haurrak inplikatzuz gero, lore banaketa ekimen egokia izango litzateke»

Azaroaren 25aren bueltan, «Udalak lore banaketa egin zuen, herriko elkarteak baztertu eta kanpoko elkarte bat gonbidatuz», kritikatu dute.

EMAKUMEENGANAKO Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izaten da Azaroaren 25a, eta aldarria kalera eramateko ekintza bat antolatu zuen Udalak; «moduak» kritikatu ditu EH Bilduk: «Udalak lore banaketa egin zuen, herriko elkarteak baztertu eta kanpoko elkarte bat gonbidatuz».

EH Bilduk azaldu duenaren arabera, «ekimen honekin EAJK 'Astigarragak indarkeria matxistaren aurka duen jarraera proaktiboa islatzeko modu aktibo eta dinamiko' ikusarazi nahi zuen, baina horretarako, Astigarragako herritar eta eragileak inplikatu beharrean, Donostiako txirrindulari talde bat ekarri zuten». Eta kritikatu dute: «EH Bilduk erabat lekuz kanpo ikusten du ekimen hau hone-

la antolatu izana. Herrian txirrindulari talde eta kirol elkarte badaude eta hauek ez dute Udalaren aldetik inolako gonbidapenik jaso». «Herriko elkarte guztiei begirunea galdu eta mespretsuzko erabakia» dela uste du EH Bilduk.

«Herritarrek inplikatzuz etengabe jarraitu behar da indarkeria honen aurka. Lore banaketa, herriko familiak eta haurrak inplikatzuz gero, ekimen egokia izango litzateke», nabarmentzen dute.

Haritu, eskerrak

Egun horren bueltan, baita ere, ekitaldia egin zuen Harituz elkarteak: «Udalaren ekimen gabeziaren aurrean, EH Bildurentzat pozgarria da, gizon eta emakumeen berdintasunerako herriko Hari-

tuz elkarteak 'Indarkeria matxistaren aurkako matzak' ekimenarekin egiten duen lana». Horregatik, «esker ona adierazi nahi die bertan burubelarri lanean ari diren emakume guztiei».

Mozioa, Plenoan

EH Bilduk jakinarazi du, baita ere, horren bueltan mozioa aurkeztu zuela Udalean: «helburua da balibide eta tresnak mahai gainean jarri eta indarkeria matxistaren aurkako udal-politikari hauspoa ematea da». Baina EAJK ez zuela plenora eraman: «hainbat ekimen interesgarri proposatzen zituen [...] Horieta asko aurreko urteetako mozioetan proposatu eta aho batez onartuak izan dira baina bat bera ere ez da martxan jarri». ■

■ MUNDARRO KIROL ELKARTEA

Beste garaipen bat, astigartarrek

1-2 irabazi zuten Mundarroko mutilek Dunboa Eguzkiren kontra larunbatean, Irunen.

BIDE onetik jarraitzen dute Mundarroko mutilek aste honetan ere 1-2 irabazi zuten Mundarroko mutilek larunbatean, Irungo Dunboa Eguzkiren kontra, haien etxean.

Talde lanari esker, beste hiru puntu poltsikoratu zuen taldeak. Eta azkeneko sei norgehiagokak irabazita, bigarren sailkatua da egun, Andoaingo Euskaldunaren atzetik.

Hasieratik, estutzen

Aurkariaren aurrean ondo kokatuta eta estutzen hasi ziren astigartarrak, eta horri esker, hamargarren minutuan lortu zuten aurreneko gola; Beñatek Iñurriri egindako pase on bati esker, azken honek erraz sartu zuena. Bigarrena

ere, segituan sartu zuen Beñatek; aurkariaren defentsaren bizkarra harrapatu eta atezainaren gainetik gola sartu zuen. Kolpe horren eraginez, Dunboa astigartarrak estutzen hasi zen, deseroso sentiarazi arte.

Estutze-lan horrekin jarraitu zuten irundarrek bigarren zatian ere, eta horren saria izan zen partiduko gol bakarra. Gol horrek indarra eman zion aurkariari; baloi gehiago izan zituzten, eta baita aurkako zelaian presentzia haundiagoa ere. Dena den, horren aurka egin zuten moreek, eta gutxinaka lerroa aurrerago botatzen hasi eta lapurtutako baloi horietan arriskua egiteko sentsazioa eman zuten. ■

■ PRESOEN LAGUNAK

Hiru zita, urtea bukatzeko

Abendurako, urtea bukatzeko, hiru deialdi egin dituzte Astigarragako Presoen Lagunek. Aurrenekoa astelehenerako: 16:00etan Oialumetik abiatuta, Euskal Presoen aldeko Olientzeroa izango da. Hilaren 28an, azken ostirala! kontzentrazioa izango da 20:00etan Joseba Barandiaran plazan. Eta azkenik, hilaren 30ean, Martuteneko espetxera marxa egingo dute. 11:00etan jarri dute zita kupelaren errotondan, eta eguerdiko 12:00etan izango da ekitaldia, Martutenen. ■

■ KIROLAK ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
Mut. Erregional Preferentek	Dunboa Eguzki-Mundarro	1-2
Mut. Erregionalak 1go maila	Kozkas-Mundarro	1-0
Mut. Jubenilak Ohor. maila	Mundarro-Dunboa Eguzki	12-0
Mut. Jubenilak 1go maila	Mundarro-Latzkao	2-0
Mut. Kadeteak Ohor. maila	Martutene-Mundarro	5-0
Mut. Kadeteak 1go maila	Hernani-Mundarro	3-0
Mut. Infantilak 1go maila	Mundarro-Sense	7-0
Mut. Infantilak 1go maila	Añorga-Mundarro B	2-1
Infantil Txikiak	Pesala-Mundarro	0-2
SASKIBALOA		
Mut. Gipuzkoako 1go maila	Mundarro-Take Orbela	57-55
Nsk. Gipuzkoako 2. maila	Ordizia-Mundarro	55-38
Mut. Gipuzkoako 3. maila	Axular-Mundarro B	55-47
Mut. Juniorkak	Mundarro-Oiarso	72-48
ESKUBALOA		
Nsk. Jubenilak	Ordizia-Mundarro	16-17
ESKU PELOTA Gipuzkoako Trinketeko Txapelketa		
Eskuz Banaka Nagusiak	Maiz-Oier Gurutzalde	36-40
Eskuz Banaka Jubenilak	Ganix Urdangarin-Zugasti	0-35